

Haur Hezkuntzako Gradua

2019-2020 ikasturtea



HAURREN AURKAKO SEXU-ABUSUAK GAUR EGUNGO JENDARTEAN ETA HEZKUNTZA SISTEMAK HONEKIKO DUEN JARRERA

Egilea: Maitane Garcia Herce

Zuzendaria: Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor

Leioan, 2020ko maiatzaren 27an

AURKIBIDEA

LABURPENA	2
SARRERA.....	3
MARKO TEORIKOA	3
1. Haurren kontrako sexu-abusua, kontzeptualizazioa.....	3
1.1.Sexu-abusuaren inguruko definizioak.....	4
1.2.Sexu-abusuak jasaten dituzten haurren maila soziala.....	5
1.3.Sexu-abusuak jasaten dituzten haurren generoa eta adina	5
1.4.Sexu-abusuak jasatearen ondorioak.....	6
1.5.Sexu-abusuak, isilpean eta sekretupean.....	7
2. Sexu-abusuen sailkapena.....	8
2.1.Sexu-abusu motaren arabera sailkapena	8
2.2.Sexu-abusua ematen den eremuaren arabera sailkapena: intrafamiliarra (intzestua) eta extrafamiliarra.....	8
3. Erasotzailea eta biktima.....	9
4. Haurren kontrako sexu-abusuak eta eskola eremua.....	10
4.1.Eskolako egoera.....	10
4.2.Irakasleen formakuntza eta jarrera.....	11
4.3.Identifikazioa eta esku-hartzea.....	12
4.4.Eskola eremua eta prebentzioa	12
MARKO ENPIRIKOA	13
5. Helburua	13
6. Metodologia	14
6.1.Lagina.....	14
6.2.Tresna.....	14
6.3.Prozedura.....	14
7. Emaitzak	15
8. Ondorioak	22
9. Erreferentzia bibliografikoak.....	26
10. Eranskinak	28

HAURREN AURKAKO SEXU-ABUSUAK GAUR EGUNGO JENDARTEAN ETA HEZKUNTZA SISTEMAK HONEKIKO DUEN JARRERA

Maitane Garcia Herce

Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU)

Gaur egun bost haurretatik batek sexu-abusuak pairatzen ditu. Errealitate hori oinarri izanik, arazoaren nondik norakoak aztertzen ditu jarraian aurkezten den lanak, adieraziz haurren aurkako sexu-abusuen gaiarekiko formakuntza eza dagoela hezkuntza arloan. Ondorioz, aurre ikusten da irakasleriaren formakuntza eza horrek gaiarekiko uste oker edota aurre-iritziak areagotzen dituela. Hori horrela, irakasleriak duen formakuntza eta uste okerren inguruko ikerketa lana abiatzen da, 31 item ezberdinez sortutako galdetegi bat abiapuntu izanik. Denetara, 156 irakaslek osaturiko lagina bildu da. Galdetegiaren emaitzetan sexu-abusuari buruzko formakuntza eza nagusitzen da, horri loturik agertuz askotariko uste oker edota aurre iritzi. Azkenik, ondorioztatzen da arazo larri baten parean egonik ere, kontzientziazio falta gailentzen dela. Guzti honek hezkuntza arloan dituen inplikazio praktikoak eztabaidatzen dira.

Haurren aurkako sexu-abusuak, irakasleria, formakuntza, eskola, aurre-iritziak, uste okerrak

Actualmente uno de cada cinco niños/as sufre abusos sexuales. Partiendo de esta realidad, el trabajo que se presenta a continuación analiza la naturaleza del problema, señalando la falta de formación hacia los abusos sexuales en la infancia en el ámbito educativo. En consecuencia, se observa que la falta de formación del profesorado aumenta las creencias erróneas o prejuicios sobre el tema. En este sentido, se inicia el trabajo de investigación sobre la formación y las falsas convicciones del profesorado a partir de un cuestionario generado por 31 ítems diferentes. En total se ha recogido una muestra de 156 profesores/as. Los resultados del cuestionario se centran en la falta de formación sobre el abuso sexual, a través de la aparición de diversas convicciones erróneas o prejuicios. Por último, se concluye que, a pesar de estar frente a un grave problema, prevalece la falta de concienciación. Se discuten las implicaciones prácticas de todo ello en el ámbito educativo.

Abusos sexuales infantiles, profesorado, formación, escuela, prejuicios, falsas convicciones

Currently, one in five children is sexually abused. Based on this reality, the work presented below analyses the nature of the problem, pointing out the lack of training towards sexual abuse in childhood in the educational field. Consequently, it is observed that the lack of teacher training increases erroneous beliefs or prejudices on the subject. In this sense, the research work on teacher training and false convictions is initiated based on a questionnaire generated by 31 different items. In total, a sample of 156 teachers has been collected. The results of the questionnaire focus on the lack of training on sexual abuse, through the appearance of various erroneous convictions or prejudices. Finally, it is concluded that despite being a serious problem, lack of awareness prevails. The practical implications of this in the educational field are discussed.

Child sexual abuse, teachers, training, school, prejudice, false convictions

SARRERA

Haurren aurkako sexu-abusua maila sozial, ekonomiko eta kultural guztietan ematen da, mundu mailako arazo larria bilakatuz. Hori horrela izanik, honekiko kontzientziazioa ere mundu mailakoa izan beharko luke.

Gradu Amaierako Lan honetan haurren aurkako sexu-abusuen inguruko lanketa burutzen da. Hasteko, honen kontzeptualizazioaz jardunez, jarraian abusuen sailkapenez mintzatuz, erasotzaile eta biktimaren ezaugarriak aipatuz eta azkenik eskola eremuari erreferentzia eginaz.

Mundu mailan ematen den arazoa izanik ere, gaiarekiko dauden ikerketa, informazio zein formazio eza nagusi dira jendartean. Guzti hori aintzat hartuz eta graduan zehar gaiaren inguruko lanketarik ematen ez dela ikusiz, honi dagokion ikerketa lana egitea erabaki da gradu amaierako lanaren bidez, isilpetik atera nahian eta ahotsa emanaz mutu nahi dieten horiei, sexu-abusuak jasaten dituzten haurrei bereziki.

Ikerketa lanean gaur egungo errealitateari erreparatzen zaio honen helburu izanik irakasleriaren aurre-iritzi edota uste okerrak ezagutzea eta era berean gaiarekiko dagoen formakuntza aztertzea, hauen arteko loturak eginez eta aurre ikusiz formakuntza eza izan daitekeela uste okerren eragile.

Ikerketa burutze aldera hautatu izan den metodologian erabilitako tresna 31 item ezberdinez osatutako galdetegia izan da, honen hedapenari esker 156 pertsonako lagina bildu delarik. Lortutako laginaren emaitzak modu kuantitatibo eta kualitatiboan aztertu dira. Ondorio garrantzitsuena haurren kontrako sexu-abusuen gaiarekiko dagoen kontzientziazioa oso murrizta dela izan da, problematikaren larritasuna izugarria izanik ere.

MARKO TEORIKOA

1. Haurren kontrako sexu abusua, kontzeptualizazioa

Haurren kontrako sexu-abusua modu ezberdinetan definitzen dute autore desberdinek. Hori kontuan izanik eta honen inguruan dauden definizio eta usteak adieraztera jo orduko, gaur egun Eusko Jaurlaritzak indarrean duen Hezkuntza- arloko prebentzio eta jardun-protokoloak zer dioen erreparatzeari ekin behar zaio.

“Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoeretarako, eta

hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzaren eta koordinaziorako” (2016), izena duen protokoloak bere gain hartzen dituzten hainbat definizio, adierazle, behatu beharreko zenbait jokabide etab., eta guzti hau, adingabeak babesteko helburuarekin burutzen da. Adingabe horiek babesgabetasun, tratatu txar, jazarpen edo sexu-abusuak jasan dituzte.

Protokoloaz gain, egoera honen iraganari erreparatuz gero, aipatzekoa da 70eko eta 80ko hamarkadaren hasiera arte umeei egindako sexu-abusua ez zela tratatu-txar kontsideratzen. Indarkeria sexuala tratatu-txar mota bat zela onartu zen lehen aldiz 80ko hamarkadaren lehen urteetan, eta honi erantzun ahal izateko baldintza sozial eta zientifikoak sortzeko beharra azpimarratu zuten besteak beste Finkelhor, (1984) edo López, Carpintero, Hernández, Martín eta Fuertes-ek, (1995, Muela-k aipatua, 2007).

Iraganeko eta gaur egungo egoerak alderatuz Muela-k (2007) dio haurren aurkako sexu-abusuen arazoaren aurrean gizarteak orokorrean gero eta kontzientzia gehiago hartzen duela (Muela, 2007). Era berean López-ek (d.g., Casado, Díaz & Matínez-ek aipatua, 1997) ere haurrenganako sexu-abusuak beti existitu izan direnaren ideia defendatzen du, gaur egun honen inguruko azterketa eta kontzientzia sozial gehiago dagoela esanez.

1.1. Sexu-abusuaren inguruko definizioak

Haurrenganako sexu-abusua, indarkeria motarik larrienetarikoa da eta abusu hauek haurren muga intimoen haustura suposatzen dute, hala nola, pertsona batek bere jarrera sexuala inposatzen baitio umeari. Horren ondorioz sortzen den testuinguruan desberdintasuna eta boterearen asimetria nagusitzen dira, iruzurraren, gezurraren eta manipulazioaren ondorioz ematen dena (Orjuela & Rodríguez, 2012).

Rodríguez-ek (2013, Aguiar, Fernández & Pereira-k aipatua, 2015) dio indarkeria, adingabe baten tratamenduan burutzen den eta guraso edo zaintzaileen partetik ematen den edozein ekintza edo omisio (fisikoa, sexuala edo emozionala) ez ustekabea dela. Díaz-Aguado-k (2001) gizartean dauden tabuak baliogabetzen dituen eta heldu batengatik haur batenganako mota sexu-ekintza, izendatzen du sexu-abusua.

Iritzi horri beste hainbat eta hainbat kontrajartzen bazaizkio ere, López-ek (d.g., Casado, et al.-ek aipatua, 1997) indarkeria fisikoa edo engainua eta adinaren asimetriak haurrak askatasunez erabakitzeko duen aukera eragozten dutenaren iritzia plazaratzen du, aurretiaz Orjuela eta Rodríguez-ek (2012) ere aipatu izan duten bezala. Honek ezinezko

bihurtzen du bien arteko ekintza sexual komuna. Gainera esperientzia, heldutasun biologiko eta aurre-ideia oso ezberdinak dituzte biek eta hori kontuan izanik ondorioztatzen da asimetria honek ezinezko bihurtzen duela berdintasunean oinarritutako erlazio bat (López, d.g., Casado, et al.-ek aipatua, 1997). Horno-k (2013), haurren psikologoa eta besteak beste haurren babes programetan aditu denak, dio haurra erasotzailearen asebetetze hutserako erabiltzen dela, inongo baimenik gabe, eduki sexualeko edozein motatako kontaktu edota interakzio bere gain hartzen dituelarik.

1.2. Sexu-abusuak jasaten dituzten haurren maila soziala

Sexu-abusuak pairatzen dituzten haurren familiei erreparatuz gero, Muela-k (2007) dio sexu-abusuak maila sozial guztietako haurrengan ematen direla, hau da, maila sozial altu zein baxuko familietan ematen dela, alegia. Horno-k (2013) ere Muela-k (2007) aipatzen duen ideia bera defendatzen du: sexu-abusia maila sozial, ekonomiko eta kultural guztietan ematen dela esanez.

1.3. Sexu-abusuak jasaten dituzten haurren generoa eta adina

Haurren generoari dagokionez, ikerketa gehienetako emaitzek erakusten dute erasotutako neskatok direla (Orjuela & Rodríguez, 2012). Ildo beretik Finkelhor-ek (1986, Muela-k aipatua, 2007) egindako ikerketen emaitzek zera diote: sexu-abusuak pairatu izan dituzten haurren % 3 eta % 31 bitartekoak direla mutikoak eta % 6 eta % 62koak berriz neskatok. Osasunaren Mundu Erakundeak (2013, Vila, Greco, Loinaz & Pereda-k aipatua, 2019) ere Europa mailan burututako beste ikerketa baten emaitzek % 19,1 haur eta nerabek sexu-abusuak pairatzen dituztela adierazten dute. Pereda eta Forns-ek (2007, Vila, et. al.-ek aipatua, 2019) era berean % 17,9 haurrek sexu-abusuak jasaten dituztela aipatzen dute. Paúl, Milner eta Múgica-k (1995, Pereda-k aipatua, 2016), ordea Euskal Herriko egoerari erreparatzeko asmoz, unibertsitate mailako 403 ikasleko lagina hartuz ikerketa lan bat burutu zuten. Egindako ikerketa honen emaitzek adierazi zuten ikasle hauen % 13,4ak haurren kontrako sexu-abusuak jasan izan zituztela. Hauen generoari dagokionez ikerketa aurrera eramane zuten autoreek esan zuten, haur hauen % 9,7 mutikoak ziren bitartean % 13,4a neskatok zirela eta horietatik % 3,9 mutiko eta % 6,4 neskatok 13 urtera orduko sexu-abusuak jasan izan zituztela aitortu zuten.

Ikerketekin jarraituz, Pereda-k (2016) hiru ikerketa metanalitikoren ondorioak azpimarratzen ditu. Horietatik lehenengoa Pereda, Guilera, Forns eta Gomez-Benitok (2009, Pereda-k aipatua, 2016) burutu zuten 22 herrialdeetako laginak bere gain hartuz.

Bertan, % 7,9 gizonezko eta % 19,7 emakumezko 18 urte bete orduko noizbait sexu-abusuen (kontaktuarekin edo kontaktu gabe) biktima izan direla ematen dute aditzera. Bigarren ikerketa ordea Stoltenborgh, van IJzendoorn, Euser eta Bakermans-Kranenburg-ek (2011, Pereda-k aipatua, 2016) eraman zuten aurrera, bertan adierazten delarik % 7,6 gizonezko eta % 18 emakumezko haurtzaroan sexu-abusuak jasan izan zituztela. Datu horiek bost kontinenteetako zenbait herrialdetako errealitatearen berri ematen dute. Ikerketa metanalitikoekin bukatzeko, hirugarren eta azkena Barth, Bermetz, Him, Trelle eta Tonia-k (2014, Pereda-k aipatua, 2016) egin zuten 24 herrialdetako datu bilketen ondorio gisa ondorengo emaitzak lortuz: % 8 gizonezko eta % 15 emakumezko sexu-abusuak jasan izana aitortzen dute. Hiru ikerketa metanalitikoak kontuan izanik Pereda-k (2016) ondorioztatzen du ikerketek ezin hobeto baieztatzen dutela arazo larri honek (haurren kontrako sexu-abusuak) jendarte osoari eragiten diola. Modu berean Vila, Greco, Loinaz eta Pereda-k (2019) haurren kontrako sexu-abusua jendartean ematen den arazo larri bezala izendatzen dute azpimarratuz ez dela beti honen detekziorik ematen.

Guzti horrez gain, haurren adina kontuan hartuz Intebi-k (2011), 1993an burututako ikerketa batek baieztatzen du sexu-abusuak jasandako haurren % 23,2a 0-5 urte bitartean kokatzen zela eta % 48,5a ordea 6-11 urte bitartean. Guerricaechevarría-k (d.g.) ordea, 6 urtetik hasita 12 urtera arteko haurretan jartzen du fokua, haur biktimizatuak adin tarte horretan kokatzen direla adierazteko.

1.4. Sexu-abusuak jasatearen ondorioak

Sexu-abusuek haurrengan eragin ditzaketen ondorioen inguruan ez dago ezer zehatzik finkatuta, eta hori horrela bada ere, argi dago sexu-abusuak pairatzeak haurraren osasunean, epe motz zein luzera, modu zuzen eta kaltegarrian eragina izango duela (Muela, 2007). Villanueva-k (2013) ere Muela-k (2007) egindako sailkapena egiten du, biktimgan ematen diren ondorio fisiko, psikologiko eta jarrerazkoak epe motz eta luzera eman daitezkeela esanez (Darriulat-ek aipatua, 2017). Orjuela eta Rodríguez-ek (2012) arlo fisiko (hematomak, odol galtzeak, sexu-bidez transmititutako infekzioak, etab.) eta psikologikoan (arazo-emozionalak, kognitiboak, harremanetarakoak, funtzionalak eta jarrerazkoak) ematen diren ondorioak aipatzen dituzte. Finkelhor, Ormrod eta Turner-ek (2007, Vila, et al.-ek aipatua, 2019) ondorioak min fisiko eta psikologikoez haratago doazela diote, sexu-abusuek haurrengan ondorio larriak eragiten dituztela aditzera emanez. Bi autore hauek gaineratzen dute, garapen prozesuan dagoen

haurren burmuinak alterazioak jasaten dituela eta zuzen-zuzenean hauen eraikuntza zein funtzionamendu normala oztopatzen dutela.

Eskola eremuari erreferentzia eginaz, hau da, funtzionamendu akademikoari, Friedrich-ek (1994), Rust eta Troupe-k (1991) sexu-abusuak jasan dituzten hurrek lorpen akademiko, oroimen gaitasun eta orokorrean galdeketa kognitiboetan emaitza baxuagoak izan ohi dituztela defendatzen dute (Muela-k aipatua, 2007). Guzti hori horrela izanik, Intebi-k (1998, 22. or.) hurren etorkizunaren inguruan zera dio: “Ningún castigo parece revestir la suficiente severidad para resarcir a la víctima por el daño causado”. Modu honetan, biktimari eragindako mina konpentsatuko duen zigorrik ez dagoela adierazten du, kaltea haurrarengan iltzatuta geldituko dela azpimarratuz.

1.5. Sexu-abusuak, isilpean eta sekretupean

Jakina da sexu-abusu egoerak jasaten dituzten hurren gehiengoak ez dituztela haien bizipenak kontatzen hauek ematen diren unean bertan, hau isilean mantenduz kasu gehienetan. Ehuneko txiki batek baino ez du salaketa zerbitzu ofizial baten jartzen sexu-abusua ematen den unean (Pereda, 2016). Sekretuan mantentze horren arrazoia sarritan lotsa, errudun sentazioa edota mehatxatuta egotea izan daitezke eta maiz hurrak presiopean egon ohi dira, beste kide batzuk babesteko nahiagatik (Lago & Céspedes, d.g.). Moltedo eta Miranda-k (2004) argi diote erasotzaileak badakiela erasotzen ari dela eta horren jakitun direnez mehatxuen bidez sekretuaren legea ezartzen dietela hurrei. Biktimak (hurrak) egoera onartu eta horretara moldatzen dira. Echeburúa eta Guerricaechevarría-k (d.g.) hurrek abusua isilpean mantentzearen beste faktore batzuk azaltzen dituzte. Batetik, abantaila (opariak, etab.) gehiago lortzen dituztenaren ideia aipatzen dute eta bestetik, sinistua ez izateko edota hurrari seduzitzailea dela leporatzearen beldurra, sexu-abusua sekretuan mantentzearen eragileak izan daitezkeela diote oraintsu aipatutako bi autoreek. Iritzi horiez gain, ikarak, larritasunak eta antibalentziak hurrek aktiboki jarduteko duten aukera ukatzen dutela dio Bentancor-ek (2013, Darriulat-ek aipatua, 2017). Beraz, norbaitek erasotzen duenean, biktimaren jarrera ihes egin eta norbere burua defendatzea izango litzatekeen arren, hurren kontrako sexu-abusuen kasuan normalean ez da horrelakorik ematen, izan ere, hurrak konfusio egoera baten parean kokatzen baitira. Modu honetan bizirauteko duten aukera (sexu-abusuak jasaten jarraitzea) bakarra egoera horretara ohitzea izanik (Raygoza, 2009, Losada & Saboyak-ek aipatua, 2013).

Pereda-k (2016) dio isilpean dagoen gaia izatearen ondorioz, intzidentzian oinarritzen diren ikerketak burutzeko aukera baino ez dagoela. Autoritateari, hau da, ospitaleetako profesionalek, poliziek, zerbitzu sozialek, etab. jasotako salaketen datuak baino ez dituzte bere gain hartzen ikerketa mota hauek. Hori horrela izatearen ondorioz isilpean dauden gainontzeko kasuak edota autoritateari aitortu ez zaizkionak ikerketetatik kanpo gelditzea dakar.

2. Sexu-abusuen sailkapena

2.1 Sexu-abusu motaren araberako sailkapena

Aurki daitezkeen sailkapen ezberdinen artean, bi autorek edo iturri ezberdinek diotena da jarraian adieraziko dena.

Lago eta Céspedes-ek (d.g.) kontaktu fisikodun sexu-abusua eta kontaktu fisikorik gabekoa bereizten dituzte. Lehenengo horrek, bortxaketa (penetrazioa, alu, uzki edo ahoan edozein objektuekin) penetrazio digitala (alu edo uzkitik atzamarra sartzea), penetrazio baginala edo uzkikoa (zakilarekin edo objektuekin), genitalak ukitzea, masturbatzea derrigortzea, ahozko genitalen kontaktua eta hurrei animaliekin harreman sexualak izatera behartzea hartzen ditu bere gain. Bigarrenak ordea, hau da, kontakturik gabekoak, ondorengoak izango lirateke: sexu jarduera espliziturako hitzezko proposamenak egitea, exhibizionismoa eta hurrei besteen sexu jarduerak ikustera behartzea, besteak beste.

Ildo beretik Echeburúa eta Guerricaechevarría-k (d.g.) ere bat egiten dute oraintsu aipatutakoarekin, bi sexu-abusu mota ezberdinduz.

2.2. Sexu-abusua ematen den eremuaren araberako sailkapena: intrafamiliarra (intzestua) eta extrafamiliarra

Sexu-abusuak ematen diren banakoen artean erlazio afektiboa egon ohi da Horno-ren (2013) esanetan. Hori aintzat hartuta, Barudy-k (1999, Villanueva-k aipatua, 2013) sexu-abusu extrafamiliarrean erasotzailea familiaratik at kokatzen du, modu honetan ingurukoren bat edota guztiz ezezaguna den norbait izan daitekeela aditzera emanez. Horrez gain, sexu-abusu intrafamiliarra, familia nukleoaren (aita, neba, aitona, osaba, aita-orde edo neba-orde) barnean ematen dela definitzen du, intzestu bezala ezagutzen dena. Tuana eta González-ek (2009, Darriulat-ek aipatua, 2017) ere intrafamiliarra, testuinguru familiarrean ematen den edozein motatako adierazpen sexualekin lotzen dute.

Kolektiboa-k (2016) eta Echeburúa eta Guerricaechevarría-k (2005, Darriulat-ek aipatua, 2017) extrafamiliarra, familiarik kanpo kokatzen diren pertsonen atxikitzen diete. Corsi-k (1994, Alfaro & Marín-ek aipatua, 2008) orain arte aipatutako autoreek egindako sailkapen bera egin zuen: sexu-abusu intrafamiliarra (famiako kide batengatik ematen, intzestua deritzona) eta extrafamiliarra (auzokide edo irakasle batengatik esaterako, hau da, pertsona ezagun batengatik ematen da eraso) bereiziz.

3. Erasotzailea eta biktima

Sexu-abusu egoera baten aurretik Horno-k (2013) dio beti egon ohi dela premeditazioa eta planifikazioa, hau da, erasotzaileak ez duela nahigabe egiten, aurrez pentsatu eta planifikatuta baizik. Hauen generoari erreparatuz, Horno-k (2013) aipatzen du emakume zein gizonen burutzen dutela eraso eta biktimak (haurrak) neskek edo mutilak izan daitezkeela. Gaineratzen du, hau horrela bada ere, kasu gehienetan erasotzaileak gizonak direla, erasotzaileak, neskek zein mutilak diren bitartean. López, Hernández eta Carpintero-k (1995, Muela-k aipatua, 2007) egindako ikerketa bateko emaitzek ere erasotzaileen % 86,6a gizonenak eta % 13,9a emakumeenak direla adierazten dute.

Erasotzaileen generoaz gain, hauen adinari ere egiten dio erreferentzia Horno-k (2013), esanez erasotzailea nerabea edo heldua izan daitezkeela, eta azpimarratzen du horiez gain ezin daitezkeela ahaztu adin bera duten erasotzaileak ere badaudela. Erasotzaileen adina oso aldakorra izatearen ondorioz, adin jakin bat zehaztea ezinezko bihurtzen da (López, et al., 1995, Muela-k aipatua 2007).

Biktima eta erasotzailea ezagunak edo ezezagunak eta famiakoak edota famiari kanpokoak izan daitezke (López, et al., 1995, Muela-k aipatua, 2007). Ez dago erasotzaileen profil zehatz edo bakarrik, erasotzaileen artean hainbat ezaugarri komun aurkitu daitezkeen arren (Rodríguez, Padilla eta Banquero-Cantor, 2014 Darriulat-ek aipatua, 2017). Hori abiapuntu izanik Finkelhor, Moore, Hamby eta Straus-ek (1997) haurtzaroan sexu-abusua jasan izanak eragin handia duela nabarmentzen dute, erasotzaile askoren eragile hori dela esanik (Muela-k aipatua, 2007). Echeburúa eta Guerricaechevarría (d.g.) bat datoz oraintsu aipatutako autoreek diotenarekin eta erasotzaileen ezaugarri horri, beste hainbat gehitzen dizkiete: sozialki isolatuta, maiz etxetik kanpo, autoestimu baxua eta bikote harremanetan arazoak izatea, etab. Erasotzaile

ohikoena aita eta babesle modura amak jarduten dutela erakutsi dute nazioarte mailan burututako zenbait ikerketek (Intebi, 2011).

Erasotzaileek sarritan izan ohi dituzten zenbait ezaugarri adierazita, biktimen (haurren) hainbat bereizgarri aipatzen dituzte Conte, Wolf eta Smith (1984) eta Fleming, Muller eta Bammer-ek (1997), tartean ondorengoak aipatuz: autoestimu baxua duten haurrak, abusuzko egoera jasan dutela azalarazteko aukera gutxi dituztenak eta, besteak beste, berdinekiko erlazio urriak dituzten umeak (Muela-k aipatua, 2007). Bereizgarri horiez gain, biktimak diren haurrak ahulak direnaren ideia plazaratzen du López-ek (d.g., Casado, et al. aipatua, 1997). Kvam-ek (2004) gaineratzen du burutu izan diren ikerketek baieztatzen dutela ezgaitasuna duten hurrek arrisku gehiago dutela sexu-abusua jasateko (Muela-k aipatua, 2007). López-ek (1995) dio abusuzko egoera baten aurrean biktimek orokorrean ez dutela erreakzionatzeko joerarik, pasibotasunez jokatuz (Muela-k aipatua, 2007). Intebi (2011) ere biktima den haurraren profilaz jardun izan da, honen hiru ezaugarri azalduz: alde batetik haurraren adina, bestetik munduarekiko edo gizartearekiko duen erlazioa (ezin du gainontzeko pertsonekin konfiantzazko erlazioirik sortu, beldurrak eta lotsak direla medio) eta bukatzeko biktimak familian duen tokia (isiltzera behartuta dago familiako kohesioa mantentzeko asmoz eta erasotzailearen arretoa eskusiboaz gozatzeko abantaila du biktimak) azalduz.

4. Haurren kontrako sexu-abusuak eta eskola eremua

4.1. Eskolako egoera

Haurrenganako sexu-abusuak arazo sozial larriak dira (Vila, et al., 2019) eta eskola bera gizartearen parte izanik eskolan bertan haurren kontrako sexu-abusuak jakinarazten direla diote zenbait autorek (Vainstein, et. al., 2013). Eskola izaten da kasu batzuetan abusuaren berri ematen duen lehen espazioa, biktimak edo kideren batek (beste haur batek) jakinarazi dezake eta horrez gain, eskolako profesionalek haurra sexu-abusua jasaten dagoenaren susmoa izan dezakete zenbait seinaleri esker (Vainstein et al., 2013).

Eskolak eta zehazki irakasleak haurrenganako sexu-abusuak detektatzeko egoera pribilegiatuan aurkitzen dira (Vila et al., 2019). Moltedo eta Miranda-k (2004) eskola eremuan indikadore fisikoez gain, haurren jarreraren eman daitezkeen alterazioen ondorioz eta helduen eta haurren arteko harremanak behatuz, sexu-abusuak detekta daitezkeenaren ideia plazaratzen dute.

Espainiako Osasun Sailak (2017, Vila et al.-ek aipatua 2019) dio eskola dela sexu-abusuen inguruko jakinarazpen gutxien ematen duen esparrua, honek kasuen % 9aren berri ematen duelarik. Hori horrela izanik sexu-abusu egoera baten aurrean eskolak gaiaren inguruko ezagutza izatea ezinbestekoa da, izan ere, egoera horri ezin baitzaio bakarka edo modu isolatuan erantzun (Vainstein et al., 2013).

4.2. Irakasleen formakuntza eta jarrera

Eskola esparruari dagokionez sexu-abusu egoeren aurrean indarrean dagoen Hezkuntza- arloko prebentzio eta jardun-protokoloari (2016) eutsi behar zaio eta bertan zehazten den bezala irakasleek urteko formakuntza bakarra jasoko dute. Bertan landuko diren gaietako batzuk sexu-abusuen adierazleak edota identifikazio kasu baten aurrean jarraituko diren prozedurak direlarik.

Hezitzaileen oinarrietako bat umeei kontatzen dutenari balioa ematea litzateke Horno-ren (2013) arabera eta gaineratzen du honi ezin dakiokela inolaz ere zilegitasunik kendu. Irakasleen jarreraz mintzo da Jiménez (2016) ere eta honen hitzetan, ezinbestekoa da irakasleen behaketa jardunari garrantzia eman eta honetaz jabetzea. Haurrek sarritan konfiantzazko harreman bat sortzen baitute haien irakasleekin eta baliteke haurrek konfiantza horretaz baliatuz hezitzaileei, haien bizipena (sexu-abusua) edota egoeraren berri ematea, modu honetan irakasleak sexu-abusua detektatuz. Honelako egoera baten aurrean, irakaslearen zeregin bakarra haurrari entzutea litzateke, hautatutako jarrera (entzute aktiboa edo ez) horrek haurraren etorkizuna baldintzatuko duelarik. Kontuan izan behar da irakasleak hartzen duen jarrera, izan ere, honek umeari kasurik egin ezean edota hark kontatutakoa epaituz gero, haurra irakasleak hartutako jarreraz ohartuko da eta honen ondorioz, posible izango litzateke kontatutakoa berriz ez errepikatzea. Cyrulnik-ren (2001) arabera haurrak jasandako horrek mina eragingo dio, horri umilazioa edota baztertua izan denaren sentimendua gaineratuz. Hori horrela izanik lehen golpe bezala izendatzen du haurrak jasandako mina eta bigarrena berriz, behin min hori kontatzean horren inguruan sortzen dena. Modu honetan bi golpe hauen ondorio izanik trauma bezala izendatzen duena.

Intebi-ren (2011) iritziz edozein irakasle prest egon beharko litzateke haurren kontrako sexu-abusu egoeren aurrean eman daitekeen errebelazio bat entzuteko. Hezitzailearen formakuntzarekin jarraituz eta Jiménez-ek defendatzen duen ideia berari lotuta, Intebi-k (2011) dio haurrak jasaten dabilen bizipen hori kontatzen duenean,

irakasleak arretaz entzun behar diola ezinbestean eta bereziki haurrak kontatzen duena sinistu behar duela.

4.3. Identifikazioa eta esku-hartzea

Irakasleen formakuntzatik abiatuta, eta haratago joanaz, hezitzaileak gelako haur bat sexu-abusuak jasaten dagoenaren susmoa izanez gero, Orjuela eta Rodríguez-ek (2012) jarraitu beharreko zenbait puntu azpimarratzen dituzte. Lehenengoa lasaitasunez jokatu eta galdera deserosoak egitea ekiditea izango litzateke. Jarraian haurra ez presionatzeko edota datu zehatzik ez eskatzeko aipatzen dute. Horiez gain, eta haien aburuz garrantzitsua dena, haurrari sinistea eta galderarik ez egitea izango zen. Irakasleak errespetuzko jarrera erakutsi behar du uneoro eta haurrari kontatu izana eskertu behar dio. Modu berean berari (hezitzaileari) kontatutakoa beste norbaiti kontatu behar diola azaldu behar dio, betiere haurrari presionatu gabe. Irakasleen egin beharrekin jarraituz, umeak kontatutakoa modu labur eta zehatzean idaztea funtsezkoa da, hortik abiatuta irakasleek laguntza espezializatua bilatu beharko lukete eta identifikazioaren azken urratsa haurrari erantzun bat behar duen egoera dela azaltzea litzateke.

Ildo beretik, Horno-k (2013) gogoratzekoa den eta Orjuela eta Rodríguez-ek (2012) ere aipatzen duten ideia bat garatzen du, esanez, garrantzitsuena umearen sentimenduak eta emozioak ez ukatzea dela. Modu honetan hurrek haiek sentitzen eta bizitzen dutenari balioa emango dietelarik.

4.4. Eskola eremua eta prebentzioa

Aurretiaz aipatu bezala, eskola garaian dauden hurrez jarduten dira orain arte aipatu izan diren autore ezberdinak. Hori horrela izanik, behin eta berriz aipatutako hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloak (2016) eskola eremuari dagokionez hainbat gauza azaltzen ditu, tartean eskolak egin beharrekoak eta egin behar ez lituzkeenak zehazten baititu. Eskolaren egin beharrei helduz, ondorengoak aipatzen dira: susmoaren zantzuei arreta eskaintzea, tratu txarrak, sexu-jazarpena edo sexu-abusuak jasan dituela kontatzen duen ikasleari modu egokian entzutea, haurraren intimitatea errespetatzea, hezkuntza-esparruko laguntza-talde eta talde teknikoei berehala jakinaraztea, kasuaren ezaugarriak zehazteko erabakigarriak izan daitezkeen datuak eta informazioak erregistratzea, etab. Horiez gain, eskolak ezin du inolaz ere entzungor jokatu edota honen inguruko epairik egin, haurraren edo nerabearen gorputza arakatu, ezta galdeketa egin (Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, 2016).

Prebentzioaz hitz egiteko lehenik eta behin hau esandakoan ulertzen dena argitzea komeni da. Prebentzioak eta zailtasunek lotura estua dute eta hiru mailatakoak sailkatu daitezke. Lehenengoa, sexu-abusua eman orduekoa da, gizarte osoari zuzendua dena eta bertan, haurren kontrako sexu-abusuen inguruko intzidentziaz (emandako kasuen datuak) jarduten da. Bigarrena ordea abusuaren detekzio goiztiarrari lotua doa, sexu-abusua gelditu edota honen hedapena ekiditea du helburu eta azkena behin sexu-abusua emanda berriz hori ematea ekiditea du xede eta emandako sexu-abusu horren ondorioz sortutako kalteari eustea, erantzun bat emanez (MacMillan, Offord, Griffith, 1994; Repucci, Land & Haugaard, 1998, Martínez-ek aipatua, 2000).

Orain arte irakasleen formakuntza eta egin beharrak azaldu izan badira ere Horno-k (2013) gogor defendatzen du sexu-abusuari dagokion prebentzio plana ez duela soilik irakasleak hurrekin modu isolatuan landu behar. Ezinbestekoa baita, hau, eskola instituzioak onartutako programazioari jarraituz lantzea. Eskolak konpromesua hartu beharko luke, zuzendaritzaren esparrutik, sexu-abusu egoera baten aurrean nola jardun behar den garatzea, hau da, protokoloari eustea. Protokolo honek derrigorrez hurrek modu zuzenean salatzekeo baliabideak eskaini beharko lituzke eta horrez gain, pertsona bat izendatuko litzateke guzti hau aurrera eraman eta jarraipen bat izango duela ziurtatzen duena (Horno, 2013).

Guerra eta Plaza-k (2009) diote prebentzioa eskolan landu beharreko alorretako bat dela. Sexu-eraso bati aurre egin ahal izateko estrategiak lantzen dituzten teknikak burutu behar dira hurrekin, haurrak biktima bihurtu ez daitezkan edota sexu-abusuak jasatea ekiditeko helburuarekin. Hori kontuan izanik, teknika egoki bat pentsamenduak eraldatzeko erraminta bihurtu daitezkeenaren iritzia daukate Guerra eta Plaza-k (2009, Losada & Saboya-k aipatua, 2013). Prebentzioa errotik lantzen duen Horno-k (2013) hurrei prebentzioan ezinbestekoak diren hiru mezu helarazi behar zaizkiela defendatzen du, mezuak ondorengoak izanik: maitatzen eta ondo maitatzen ikastea, sekretu on eta txarrak bereizten jakitea eta laguntza eskatzen ikastea, alegia (Horno, 2013).

MARKO ENPIRIKOA

Jarraian burututako ikerketa lanaren nondik norakoak azalduko dira, helburua, metodologia eta emaitzak adieraziz.

5. Helburua

Haur eta gazteen kontrako sexu-abusuen prebentzio, detekzio eta jardutearen inguruko formakuntza beharrak aztertzea helburu izanik burutu da ikerketa lana.

6. Metodologia

6.1. Lagina

Ikerketa lana egiteko sortutako galdetegia 156 kidek erantzun dute. Laginaren % 86,54 (n = 135) emakumeak, % 11,54 (n = 18) gizonak eta % 1,92 (n = 3) beste bat modura izendatutakoak izan dira. Hauen adin tartea 19 eta 58 urte bitartean kokatzen da, eta % 78,84 (n = 123) Bizkaikoak, % 15,38 (n = 24) Gipuzkoakoak, % 3,22 (n = 5) Arabakoak eta % 2,56 (n = 4) Nafarroakoak dira. Lagin horretatik % 42,30 (n = 66) Haur Hezkuntzan, % 41,04 (n = 64) Lehen Hezkuntzan eta % 16,66 (n = 26) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduaturik edota graduazio prozesuan daude. Lagina jasotzeko momentuan % 55,77ak (n = 87) beste ikasketarenbat dutela aipatzen dute eta % 44,23ak (n = 69) aparteko ikasketarik ez dutela esaten dute.

6.2. Tresna

Ikerketa lanaren helburua haur eta gazteen kontrako sexu-abusuen prebentzio, detekzio eta jardutearen inguruko formakuntza beharrak aztertzea izanik 31 galderaz osaturiko galdetegia sortu zen (1. Eranskina) bereziki GRAL hau burutzeko. Galdera horietatik 27 galdera itxiak izanik hauen erantzunak modu kuantitatiboan aztertuko dira, eta gainontzeko galderak modu kualitatiboan aztertuko dira, galdera irekiak baitira. 27 galdera horietatik batek, 24.ak hain zuzen ere, berezitasun bat dauka. Izatez galdera itxia da, bi aukera baino ez direlako ematen galderari erantzuteko. Erantzuteko ematen diren bi aukeren artean “Ez” hautatuz gero, honen zergaitia adierazi behar izan dute galdetegia erantzun dutenek. Beraz, galdera honen erantzunean “Ez” hautatu izan dutenek bigarren galdera bati erantzun behar izatearen ondorioz, galderaren bigarren zatiaren erantzunak metodologia kualitatiboaren bidez aztertuko dira.

6.3. Prozedura

Galdetegiko galderak egin ahal izateko funtsezkoa izan da ikertu nahi den gaira hurbilpena egitea. Galdetegiko galderak pentsatu, tutore zein beste aditu batzuekin, Gure Sarea elkartearekin, hain zuzen ere, elkarbanatu eta hauen oniritzia izandakoan galdetegia Google Formularios delakoan sortzea izan dira egiteko nagusiak. Behin hori eginda galdetegiaren hedapenari hasiera eman zitzaion, orain arte aipaturikoak izanik

prozeduraren muina. Hedapen hori unibertsitateko irakasleei korreo bidez bidaliz, klase kideei whatsApp bidez, facebookeko “Ordezkoak Martxan” eta “Oposaketetarako eta esleipenetarako informazioa” orrialdeetan publikatuz eta inguruko kontaktu guztiei eta irakasleei zabalduz egin zen. Datei erreparatuz gero, galdetegia 2020ko otsailaren 24ean eman zen argitara, 2020ko martxoaren 15a izanik galdetegia erantzuteko epemuga edota azken eguna (biak barne), guztira 21 eguneko tartea eskainiz.

7. Emaitzak

Emaitzak aztertzeke aurretiaz aipatu izan den bezala alde batetik, metodologia kuantitatiboa oinarri izanik 27 galderaren erantzunak azaleraziko dira, hauek itxiak izatearen ondorioz. Gainontzeko lau galderak eta 24. galderaren bigarren zatia erantzunak, metodologia kualitatiboa erabiliz adieraziko dira, galdera irekiak baitira.

Lehenengo galdera-multzo honetan (1-3 itemak) parte-hartzaileek sexu-abusuari buruzko formakuntzarik edota ezagutza pertsonalik zuten aztertu zen:


1. Taula: Formakuntza eta ezagutza pertsonalak

Item-ak	Bai % (n)	Ez % (n)
1. Item-a: “Gazteen kontrako sexu abusuen inguruko formakuntzarik jaso duzu noizbait?”	% 23,7 (n = 37)	% 76,3 (n = 119)
2. Item-a: “Bizi izan duzu inoiz zure ikastetxean haurren kontrako sexu abusu kasuren bat?”	% 8,3 (n = 13)	% 91,7 (n = 143)
3. Item-a: “Ezagutu izan duzu noizbait hurbiletik haurren kontrako sexu abusu kasuren bat ikastetxetik kanpo?”	% 28 (n = 44)	% 71,8 (n = 112)

Bestalde, partaideei haurren kontrako sexu-abusua definitzeko kriteriorik ezagutzen zuten galdetu zitzaien (laugarren itema) eta % 74,4ak (n = 116) dio “biktima eta erasotzailearen arteko edozelako kontaktu, nahiz eta fisikoa izan edo ez” eta % 25,6ak (n = 40) berriz, sexu abusua definitzeko kriterio nagusia “Adin txikikoaren onarpen eza” dela aipatzen du.

Adinari erreparatu nahian bosgarren (“Zein adinetan uste duzu hasten dela sexu abusua?”) galderari % 94,2ak (n = 147) sexu abusua “Edozein adinetan” hasten dela erantzun dio, % 5,14ak (n = 8) “Haurtzaro eta aurre nerabezaroan (10-11 urte) eta % 0,66ak (n = 1), hau da, pertsona bakarrak ordea “Nerabezaroan”.

Adinaz gain, sexu-abusuak ematen diren testuinguruaren inguruan dauden usteak biltzen ditu jarraian ageri den lehen grafikak.



1. Grafika: "Zein testuingurutan ematen dira sexu-abusuak?"


Honekin lotuta eta zazpigarren adierazpenari erreferentzia eginez ("Eraso hauek gehien batean ezezagunek burutzen dituzte"), % 16ak (n = 25) baiezkoa dio, erasoak orokorrean ezezagunek burutzen dituztela adieraziz eta % 84ak (n = 131) berriz, ezezkoa dio kontrako ustea plazaratuz.

Parte hartzaileen % 69,9ak (n = 109) adierazi du sexu-abusuak gehiago ematen direla "Neskatoetan", % 1,9ak (n = 3) berriz "Mutikoetan" eta azkenik, % 28,2ak (n = 44) "Bietan berdin" ematen dela aipatu du.

Erasotzailearen sexuari dagokionez bederatzigarren adierazpenak ("Erasotzaileak orokorki gehiago dira") horri egiten dio erreferentzia. Erantzunetan laginaren gehiengoak, % 98,1ak (n = 153) zehazki, dio erasotzaileak "Gizonezkoak" izan ohi direla, gainontzeko % 1,9ak (n = 3), gutxiengoak, "Emakumezkoak" direnaren ideia adierazten duen bitartean.

Erasotzaile eta biktimen inguruko galderekin jarraituz ondorengo galderak abusatuak izan diren pertsonen ehunekoari erreparatzen dio, erantzunak askotarikoak izan direlarik. Hasteko alde batetik, % 45,5ak (n = 71) "Biztanleriaren % 20 gutxi-gorabehera" hautatzen du erantzun bezala, % 35,3ak (n = 55) aldiz "% 20 baino gehiago" eta azkenik, % 19,2a (n = 30) "% 20 baino gutxiago" hautatzearen alde agertu da.

11. galderak berriz, sexu-abusua ebaluatzeko metodoaren inguruan ezagutzarik ote dagoen aztertzea du helburu, 2. Grafikan biltzen direlarik galdera honen erantzunak.



2. Grafika: "Ezagutzen al duzu sexu abusua ebaluatzeko metodorik?"


Galdetegian jasotako erantzunekin jarraituz, 12 eta 13. (11-12 item-ak) adierazpenek, haurren hitzaren sinesgarritasunari eta iragana eta orainari erreparatzen diote. 2. Taulan

ikus daitezkeelarik hauen erantzunak.

2. Taula: Sinesgarritasuna, iragana eta oraina

Item-ak	Egia % (n)	Gezurra % (n)
12. Item-a: “Haur baten testigantza heldu batena baino sinesgarriagoa da”	% 58,3 (n = 91)	% 41,7 (n = 65)
13. Item-a: “Gaur egun lehen baino sexu-abusu kasu gehiago daude”	% 30,1 (n= 47)	% 69,9 (n = 109)

Behin taula aztertuta 14. galderari (“Gure inguruko haur bati gertatuko balitzaio jakingo genukeela uste duzu? Zergatik?”) helduko zaio galdera honen lehenengo zatian jasotako emaitzen berri emanez 3. grafikaren bidez.



% 50,64 (n = 79): “Ez”

% 26,28 (n = 41): “Ez dakit”

% 23,08 (n = 36): “Bai”

3. Grafika: Gure inguruko haur bati gertatuko balitzaio jakingo genuke

Erantzunei erreparatuz beraz, asko (n = 79) izango lirateke ez luketenak jakingo haien inguruko haur batek sexu-abusuak jasaten dituela. Horren arrazoi nagusiak izanik ezkutuko zerbait edota gai tabua izatea. Horrez gain, “Baliabide falta”, “Zaila da honen onarpena gizartean”, “Biktimak esaten ez badu ez”, “Haurrak ez lukeelako esango eta esanda ere ingurukoek diskretuki jokatuko lukete”, “Antzematen zaila, agian haurrak ez du eraso moduan identifikatzen”, “Familiek isilarazteko nahia”, “Ixilpean gordetzen da, mehatxu edo beldur ezberdinengatik” eta “Nire inguruan sexu-abusuak jasaten ari diren haur batzuk daudela uste dut, portzentaiek hala diote. Baina gaia tabua da, oso zaila da horretaz hitz egitea” aipatu izan dira. Erantzunen artean nagusitu da, isilpean mantentzen den gaia izatea, identifikatzeko zailtasunak, lotsa, beldurra, etab. Gaiarekiko formakuntza eza ere azpimarratu da eta tartean pertsona batek dio bere inguruan sexu-abusuak jasaten ari diren haur batzuk daudenaren ustea duela. Horren aurrean gaia tabua izatea arrazoituz eta zailtasunak daudela aipatuz. Ezetza adierazten duten horiez gain, ez dakitela erantzun duten batzuek (n = 41) honela justifikatu dute erantzuna: “Geure begirada horretan askotan ez dugulako finkatzen”, “Ez gara konturatzen ez dugulako inoiz imajinatu hori gertatuko dela”, “Adi egon umore, jarrera aldaketei”, “Jakin arte urteak pasa litezke”, “Momenturen batean azalduko litzateke. Adierazleren batek arreta deituko luke”.

Erantzunetan ikusi izan da urteak pasa omen daitezkeela haur batek sexu-abusuak jasan izan dituela aitortzen duen arte. Honekin uler daiteke haurrak isilpean mantentzen duela bizitzen ari dena, arrazoi ezberdinak direla medio. “Bai” adierazi duten batzuk (n = 36) honela jakingo lukete haur batek sexu-abusuak pairatzen dituela: “Bere begirada, jarrera, gorputzaren markak”, “Konfiantza delako nire harremanen oinarria”, “Zerbait gertatzen dela agerian egoten delako”, “Normalean dena kontatzen dutelako”.

Erasotzaileen inguruko aurre iritziei buruzko hiru adierazpen (15-17 item-ak) ezberdin aipatzen dira 3. taulan, bertan plazaratuz bildutako laginaren erantzunak.

3. Taula: Erasotzaileen inguruko aurre iritzia

Item-ak	Egia % (n)	Gezurra % (n)
15. Item-a: “Haurren kontrako erasotzaileak ezin ditzakete beraien bulkada sexualak kontrolatu”	% 21,2 (n = 33)	% 78,8 (n = 123)
16. Item-a: “Haurren kontrako abusotzaileak burutik gaixo daude edo desoreka mental handia dute”	% 52,6 (n = 82)	% 47,4 (n = 74)
17. Item-a: “Zenbait abusotzailek beraien biktimen adin bera dute”	% 50 (n = 78)	% 50 (n = 78)

18. galderari helduz (“Zure gelan abusotzailea eta biktima izango bazenu, zer egingo zenuke? Zer nolako erabakiak hartuko zenituzke?”), “Ez dakit, gaian oso galduta nabil” (n = 10) edota “Salatu” (n = 6) egingo zutenaren iritzia sarritan aipatu izan da. Erantzunen artean protokoloari erreferentzia egiten dionik (n = 5) ere badago: “Ikastetxeak kasu hauetarako duen protokoloa (izan beharko luke) martxan ipini”. Protokoloa egon beharko litzatekeela aditzera emanez, honen existentziaren berririk ere ez duen bitartean. Bakarren batek protokoloa irakurriko lukeela adierazi du eta horrez gain, hainbat (n = 11) dira laguntza eskatuko luketenak: “Orientatzaileari laguntza eskatu”, “Psikologoarekin harremanetan jarri gaiak informatzeko eta jarraitu behar diren pautak jarraitzeko”, “Lehenik gurasoekin hitz egin, ondoren laguntza bilatu”, “Aholku profesionala bilatu”. Erantzunen artean nagusitutako beste ideia bat zuzendaritzara jotzea litzateke: “Zuzendaritzarekin hitz egin eta kideekin”, “Blokeatuta geratuko nintzateke, eta zeozer egitea kostatuko zitzaidan, baina zuzendaritzara eramango nuke kasua eta behar bada denuntziatuko nuke”. Bakar batek dio erasotzailea eta biktima, biak, maitasunez tratatuko litzatekeela, bere pentsaera honela justifikatuz: “Biak maitasunez

trataturako nituzke. Biak entzunak sentitzea, bakoitzak dituen ahultasunez ohartzen eta ulermenera hurbiltzen”. Horren aurkako iritzia plazaratzen du beste batek, zera esanez: “Abusatzaileari gogor egin”. Antzerako pentsaera dute biktima babesteko eta erasotzailea salatzeke joera erakusten duten gutxi batzuek (n = 4) ere, hauek banatzeko jarrera islatuz: “Banatu, biek in eta familiekin hitz egin”, “Abusatzailea gelaz aldatu”. Beste kasu batzuetan (n = 4) berriz, ikertzeke joera nagusitzen da: “Kasua sakonki aztertu”, “Informazioaren bilketa hasi”.

Haurren, hau da, biktimen inguruko hainbat adierazpen (19-23 item-ak) barne-biltzen ditu 4. Taulak, adierazpen hauek izandako erantzunak ere bertan aipatuz.

4. Taula: Biktimak, sexu-abusuaren erantzuleak, sinesgarritasuna eta egoera ekonomikoa

Item-ak	Egia % (n)	Gezurra % (n)
19. Item-a: “Adin txikiko biktimak gertatzen ari zaienaren erantzule dira, gertatzen ari zaiena sahiestu dezaketelako”	% 4,5 (n = 7)	% 95,5 (n = 149)
20. Item-a: “Askotan, hurrek sexu-abusuaren biktimak izan direla asmatzen dute, batzuetan heldu baten eraginpean”	% 33,3 (n = 52)	% 66,7 (n = 104)
21. Item-a: “Haurren kontrako sexu-abusu informeen erdia baino gehiago faltsuak dira”	% 5,1 (n = 8)	% 94,9 (n = 148)
	Bai % (n)	Ez % (n)
22. Item-a: “Haurren kontrako sexu-abusuak gehiago ematen dira maila ekonomiko baxuko eta arrisku sektoreen artean”	% 65,4 (n = 102)	% 34,6 (n = 54)
23. Item-a: “Haurrak abusuak kontatzen duenean ohikoa da haurrak sinestea eta protokoloak zehazten duen moduan jardutea”	% 50,6 (n = 79)	% 49,4 (n = 77)

Salaketen inguruko usteei erreparatu nahian 24. adierazpenean (“Ezagutarazten diren kasuak beti salatzen dira”) ondorengo erantzunak antzeman daitezke: % 92,9ak (n = 145) “Ez” eta % 7,1ak (n = 11) “Bai” adierazi du. Gainera, “Ez” hautatu izan dutenen (laginaren % 92,9, hau da, 145 pertsona) zergatiak askotarikoak badira ere hainbatek (n = 11) familia aipatzen dute horren eragile, ez salatzearena bereziki: “Familiako kideren

bat inplikatur dagoelako”, “Erasotzailea familiakoa/hurbilekoa delako, babestu nahia”, “Familiako irudia ez zikintzeko”. Familiaz gain, prozesu judizialari men egiten dionik (n = 7) ere badago: “Haurra epaiketa prozesutik kanpo utzi, publiko ez egiteko”, “Salatzen bada aurre egin behar zaio. Irakasle asko ez gaude prest horri aurre egiteko”, “prozesu judizialak oso luzeak eta gogorrak dira, askotan ez dute ezertarako balio”. Sarritan aipatzen diren hitzak dira esaterako beldurra, ez jakintasuna, lotsa, etab. horiek izanik hainbat (n = 106) kideren aburuz ez salatzearen arrazoi. Beste batzuen (n = 18) ustetan ordea, jarraian islatzen direnak dira horren eragile: “Besteek ez jakiteko”, “Errudun izatearen sententzia, sinesgarritasunik ez izatearen beldurra, erasotzaileak egindako mehatxuengatik”, “Denon ausardia faltagatik, froga ezagatik”. Abusua identifikatzen ez jakitea ere ez salatzearen arrazoi da zenbaitentzat (n = 3): “Ez dakitelako abusua dela”, “Haurrak gauza ohikoa dela pentsa dezake”. Bakarren batek (n = 2) akordioak edota presioa bera ekarri ditu gogora: “Akordio batera heltzen direlako”, “Kanpo presioengatik”. Azkenik, nabarmen azpimarratu da hainbatetan (n = 8) haurren hitza ez sinistea, honela esaterako: “Umeak esaten duena ez da sinisten”, “Umeenganako sinesgarritasun falta, erasotzailea familiakoa, prozesu judizialak oso luzeak/gogorrak direlako”. Bukatzeko batek gogor defendatzen du ez salatzea helduaren mesederako baino ez dela: “Beldurra dela medio eta helduaren onerako”.

Jarraian 5. taulak bere gain hartzen ditu ondorengo bost adierazpenek (25-29 item-ak) jasotako erantzunak. Adierazpen hauetan besteak beste salaketak edota prozesu judizialak eta hezkuntza protokoloa aipatzen dira.

5. Taula: Prozesu judiziala eta hezkuntza protokoloa

Item-ak	Bai % (n)	Ez % (n)
25. Item-a: “Salaketa baten aurrean jarduten duten profesionalen problematikarekiko formakuntza zehatza dute”	% 44,2 (n = 69)	% 55,8 (n = 87)
26. Item-a: “Fiskaltzak salaketa bateratu egiten du behar diren frogan eskaerak eginez”	% 55,8 (n = 87)	% 44,2 (n = 69)
27. Item-a: “Salaketak normalean aurrerako bidea izaten dute, eta ahozko epaiketetara iristen dira”	% 35,3 (n = 55)	% 64,7 (n = 101)
28. Item-a: “Hezkuntza protokoloan badira tratatu txarrak antzemateko irizpide taula desberdinak eta taula horietan argi agertzen dira tratatu txar bakoitzari dagozkionak”	% 46,8 (n = 73)	% 53,2 (n = 83)

29. Item-a: “Gaur egun Erkidegoan indarrean dagoen protokoloak 10 urte baino gehiago ditu”	% 69,2 (n = 108)	% 30,8 (n = 48)
--	---------------------	--------------------

30. galderari (“Haur hezkuntzako hurrekin sexu-abusuen gaia lantzea garrantzitsua dela deritzozu? Lantzekotan nola egingo zenuke?”) bakar batek ezezkoa erantzun dio eta 10 kidek ez dakitela aitortu dute, “Ez dut gaiaren inguruan hausnartu” esanez. Gainontzekoek (n = 145) berriz, baietz diote esate baterako formakuntza beharra dagoela azpimarratuz: “Irakasleak formatu beharko ziren”, “Interesgarria ikusten dut, baina gai honen inguruan formatua dauden profesionalen esku utzi beharko litzateke”, “Unibertsitatean formakuntza eman beharko ligukete”. Formakuntza aipatzeaz gain, adibideen erabilera ere adierazi izan da: “Adibide sinple eta zehatzak jarritz”. Horrez gain, identifikazioaren gaia landuko luketenak daude: “Askotan hurrek ez dakite zer den gertatzen ari zaiena eta normaltzat hartzen dute, aproposa da gai honi buruz informazioa helaraztea”, “Hautematen jakin dezaten. Normaltasunez hartzeko zerbait ez dela jakiteko”. Tartean material ezberdinak aipatu izan dira, esaterako: “Jolasak”, “Ipuinak”, “Elkarrizketak”, “Tailerrak”, “Irudiak”, “Filmak”, “Antzerkiak”. Sexu-abusuen gaia lantzeko gorputzaren inguruko lanketa egin daiteke: “Derrigorreko musu, laztana... ezetz esan dezaten. Norbere gorputza ta plazerra ezagutu, bakoitzarenak direla azaldu”, “Beraien gorputza beraiena dela erakusten, inork ezin duela beraiek nahi ez duten ezer egin. Era berean beraiek ere besteena errespetatu”. Tratu onak eta berdintasuna ere aipatzen dira: “Tratu onak zeintzuk diren erakutsiz, horrelakorik jaso ezean kontatu behar dutela esanez”, “Berdintasuna gaiarekin lotu”. Modu praktikoan lantzeko aukera adierazten da erantzunetan, kasu klinikoak/errealak aztertuz, simulakroak eginez, egoerak jarritz eta horren inguruan nola erantzungo zuten azaltzeko eskatuz. Haurren adin zein interesera egokitu beharko zela defendatzen da orokorrean eta sexu hezkuntza aurreratzea edota gaia era natural batean, urteko programan txertatzea proposatzen baita. Bukatzeko aipatzekoa da hainbat (n = 20) direla gaia lantzeari garrantzia eman arren nola egin jakingo ez luketenak: “Lantzea ezinbestekoa da baina ez daukat ideiarik ere nola egin daitekeen”.

31. (“Problematika honen inguruko kontzientziazio falta dagoela uste al duzu? Zergatik izan daiteke? (Deskriba ezazu laburki)”) eta azken galderako erantzunekin emango zaio bukaera galdetegiko erantzunak adierazteari. Kontzientziaziorik ez dela falta

aipatzen dute zazpi kidek, hiruk ez dakitela esaten duten bitartean. Gainontzekoek (n = 146) baietz diote eta horren eragile direla: lotsa, gizartean ezkututzen den zerbait izatea, beldurra, gai tabua eta gogorra izatea, familia barneko gauzak isilpean mantentzea edota publikoki ez esatea, ausardia falta eta besteak beste biktima errudun sentitu ahal izatea. Horrez gain, erantzunetan ikusi da garrantzia gutxi ematen zaiola edota gai hauek beti alde batera utzi izan direla aipatu dela. Tartean antzeman daitezkeen beste erantzunak dira esaterako ondorengoak: “Gertatzen diren abusuen % oso txiki bat salatzen da edo % oso txiki batez bakarrik jabetzen gara”, “Formakuntza, ezagutza eta informazio falta” eta “Irakasleen artean zaila da gai honi buruzko ezagutza handia aurkitzea”. Ezagutzaren gaiari lotuta besteren batek gaiaren inguruan ezer entzun ez izana aitortzen du: “Daramatzadan urteetan, hainbat eskoletan egon ondoren, ez dut inoiz gai honen inguruan hitz egiten entzun”, “Pertsona askok ez dakite hori existitu daitekeela”. Sinesgarritasun falta dakarte gogora honelako erantzunak adieraziz: “Gizarte heteropatriarkal batean bizi garelako eta gizarte honetan, emakumeon zein haurren eskubideak zapaltzen dira, beraz, kasu hauek gertatzen direnean talde hauei ez zaie sinesten”, “Kontzientziario falta baino gehiago, sinesgarritasun falta da.”, “Umeak beti azkenak izaten dira sinisten”. Gainera inguruan gertatu ezean ez zaio garrantzirik ematen, honela defendatuz pentsaera hori: “Urrun ikusten ditugun kasuak dira, ez gara konturatzen gertu izan ditzakegula, gure geletan”, “Beste alde batera begiratzen dugu hori gure inguruan gertatuko ez balitz moduan”, “Urruneko gaia, besteei gertatzen zaiena, gure inguruan horrelakorik gertatzea ezinezkoa dela uste dugulako”. Gaia saihesten dela aipatzen da tartean eta haurrekin gaia lantzearen garrantzia azpimarratzen da, izan ere, bakarren batek dio “Helduen mundua” dela. Bukatzeko ordea, aldaketak ematen ari direla azpimarratu nahi duenik ere badago: “Honelako gaiak ez dira sekula asko landu baina pixkanaka normaltzen hasi dira”.

8. Ondorioak

Gaur egungo jendartean eta nolana ere eremu hurbilean ematen den arazo larria da haurren aurkako sexu-abusua, hala erakusten dutelarik marko teorikoan hainbat autorek burututako ikerketen emaitzek eta baita galdetegiko erantzunek ere. Ondorio bezala ikusi izan da aspalditik datorren arazoa dela eta kasu askotan aspaldi sexu-abusuak jasan izan zituen horrek gaur egun erasotzeko joera duela (López, d.g., Casado, et al. aipatua, 1997). Hori horrela beraz, aspalditik datorren arazoa ez ezik urrutira doan arazoa dela suposa daiteke, betiere gaiari erroitik heldu ezean. Egungo errealitateari erreparatuz erantzunetan ondoriozta daiteke hainbat direla ikastetxean bertan haurren kontrako sexu-abusuak

ezagutu izan dituztenak, gehiago direlarik ordea ikastetxetik at, gertutik bizi izan dituztenak. Gaur egun sexu-abusuak jasaten dituzten haurrak daudela ikusiz eta askotan hori erasotzaile izateko eragile dela ohartuz etorkizuneko arazo baten aurrean kokatzen da jendartea, zehazki arazo transgenerazional baten parean.

Arazo honek ez du maila ekonomiko, sozial ezta kulturalaz ulertzen eta hori adierazi izan du laginaren gutxiengo batek ere, bat etorri marko teorikoan Horno-k (2013) defendatzen duenarekin. Hala ere, asko dira kontrako ustea dutenak, arazo hau maila ekonomiko baxuko edota arrisku sektoreetan aurkitzen direnei atxikiz, alegia. Uste hau oinarri izanik, hau da, galdetegia erantzun dutenen pentsaerari errotik helduz ikus daiteke askotariko aurre iritziak daudela. Tartean aipatu izan da hurrekiko sexu-abusua urrutiko zerbait dela edota inguruan gertatzen ez den arazo bezala identifikatzen dute, ondorioztatuz hau ez dela inolaz ere maila ekonomiko altuko familia baten emango. Beraz, hori izan daiteke hezitzaile askori ez inplikatzera bultzatzen diena, hainbaten aburuz gertutik bizi ezean ez baita arazoaren kontzientziaz jabetzen. Hori horrela izanik bakarrik eta modu isolatuan lan egin beharko dute arazo hau hurbiletik bizi dutenek, besteei eragiten ez dien bitartean jendartean eta bereziki hezkuntzan ez delako inongo inplikaziorik antzematen. Gainera, teorian sailkatutako bi eremuak, hau da familia barnekoa eta familiarik kanpo ematen den abusua kontuan izanik, laginaren gehiengoak lehenengo horretan jartzen du fokua, aurkako ustea duten gutxi batzuk dauden arren.

Erasoak haurtzaroan eta aurre nerabezaroan ematen direla uste dute gutxi batzuk, horiek bat etorri Intebi-k (2011) teorian aipatutakoarekin. Generoaren inguruan berriz, hainbat datu aipatu izan dira jada, ondorioztatuz neskatoak direla arazo hau gehien pairatzen dutenak, laginaren ehuneko handi batek ere hori defendatzen duelarik. Neskatoek ez ezik mutikoen ere sexu-abusuak jasaten dituztela aipatu behar da, bi generoetan ematen den arazo bilakatuz. Hala ere, ezin daiteke ahaztu datuen arabera neskatoak direla arazo hau gehien pairatzen dutenak.

Adin txikiko biktimekin jarraituz badirudi gutxi batzuen ustetan, haurrak direla gertatzen zaienaren erantzule, umeek sexu-abusua saihestu dezaketela defendatuz. Erasotzailearen menpe zaudenean ordea ezinezko bihurtzen da norbere burua babestea. Irakasleek pentsaera hori dutela ikusiz, esan daiteke egoera larri baten aurrean kokatzen dela jendartea eta nola ez hezkuntza sistema bera. Erasotzailea da sexu-abusuaren erantzule bakarra, bera izanik bere ekintzen aurre planifikazio eta premeditazioa egiten duena (Horno, 2013). Biktima ez da inolaz ere sexu-abusuaren erantzulea, eta honen

erantzule ez izanda ere honi dagokio egoera honen ondorioak jasatea. Cyrulnik-ek (2001) ezin hobeto deskribatzen baitu biktimak egoera honetan igaro beharreko golpe bikoitza: lehena erasotzailearen partetik jasaten duena eta bigarrena ordea hau kontatzean ematen dena, honen ondorio bilakatuz haurrarengan sortzen den trauma.

Orokorrean haur hauek ahulak izan ohi direla edota ez dutela erreakzionatzeko joerarik izaten (Finkelhor, et al., 1997, Muelak aipatua, 2007) aipatu izan da horrez gain, beste hainbat arrazoi egon daitezkeen arren. Biktimak ihes egiteko joera izan beharko luke, norbere burua babestu asmoz. Haurren kasuan ordea hori gertatzea ez da ohikoa izaten haurrak konfusio egoera baten aurrean aurkitzen direlako esaterako edota bizirauteko duten aukera bakarria egoera horretara ohitzea delako, alegia (Raygoza, 2009, Losada eta Saboyak-ek aipatua, 2013).

Erasotzaileak gaixo daudela edota beraien bulkada sexualak ezin dituztela kontrolatu uste dute hainbatek, erasotzaileak nahigabe egiten duela adieraziz. Aitzitik, teoriarik erakutsi izan da honek aurre premeditazio bat eta berarekin batera planifikazio bat izaten dituela (Horno, 2013). Askok dira erasotzailea ezaguna edota familiakoa izaten dela diotenak, baita hauen gehiengoa gizonezkoak direla gogoratzen dutenak ere. Hauen adina aldakorra bada ere erakutsi izan da erasotzaileak eta biktimak adin bera (Hornoz, 2013) izan dezaketela eta horren berri laginaren erdiak baino ez duela ondorioztatu da. Hori horrela izanik baliteke gela berean erasotzailea eta biktima izatea. Egoera honen aurrean irakasleengan ezjakintasuna da nagusi eta formakuntza eza horren eragile.

Eskola da kasu askotan abusuen berri izaten duen lehena, irakasleak bilakatuz sexu-abusuak detektatzeko egoera pribilegiatuenean aurkitzen direnak. Horrek horrela beharko lukeen arren, eta emaitzei erreferentzia eginaz, formakuntza eza dagoela nabarmendu da. Formakuntza ezaren ondorioz, honelako kasu bat identifikatu edo detektatzeko zailtasunak ager daitezke. Horri gaineratuz batzuetan formakuntza ezak identifikazio edo detekzioa ezinezko bihurtzen dituela. Gaiaren inguruko formakuntza duten gutxi batzuk daude tartean nahiz eta Hezkuntza-arloko prebentzio eta jardun protokoloak adierazi urtero gaiaren inguruko formakuntza bat burutuko dela. Beraz, protokoloak dioena ez omen da praktikara eramaten. Galdetegian jasotako hainbat hezitzailearen aitortzek gai honen existentziaren berri ez dutela adierazten dute, ezin hobeto helaraziz beraz, ez dela inolako lanketarik egiten, are gutxiago urtero, bertan finkatu ohi den bezalaxe. Gaiaren inguruko ezagutzarik ez dutenak ez ezik, protokolo bat existitzen dela ez dakitenak ere ageri dira tartean. Beraz, gaur egungo egoerari men eginez teoria eta errealitateak

antzekotasun gutxi dute, irakasleengan gailentzen den sentimendua gaiarekiko ezjakintasuna izanik.

Protokoloak dioenarekin jarraituz bertan aipatzen da ikasleek ere formakuntza jasoko dutela. Hala ere, irakasleen testigantzak aintzat hartuz askok ez dakite gaia bera lantzea ere garrantzitsua ote den. Hortik abiatuz ikus daiteke, formakuntza hau ere ez dela praktikara eramaten. Ondorioz, eta egoera zein den ohartuz orokorrean eskolek, zuzendaritzaren esparrutik, ez omen dute inolako konpromisorik erakusten.

Ondorioekin jarraituz, arrazoi ezberdinak direla medio gai honek isilpekoa izaten jarraitzen duela eta ezagutzen diren kasu gutxi batzuk baino ez direla salatzen baieztatzen du laginaren gehiengoak. Erantzunetan ezin hobeto adierazten da haurren hitza ez dela sinisten, hauen testigantza faltsutzat jotzen dela uste duten bitartean. Hori horrela, nork pentsa dezake norbaitek horrelako zerbait asmatuko duenik?

Haur baten testigantzaren aurrean hezitzailearen betebeharra honi entzutea eta sinistea baino ez lirateke izango, ahaztu gabe hezitzaile horren esku dagoela haurraren etorkizuna. Gaiarekiko kontzientziatorik ez dagoen eta haurren hitza zalantzan jartze hutsa aukera den honetan argi ikus daiteke nor dagoen noren menpe. Bizipen honek erabat baldintzatuko du haurraren bizia eta ikusezinak bihurtzen diren horretan ez dago biktima kontsolatuko duenik. Ez da sexu-abusu bat ordezkatu duen zigorrik, bizi izan ez duenak ez baitaki kontatze hutsak suposatzen duena, honi gehituz zure hitza lehen unetik zalantzan jarriko dela. Epaile batek erabakiko du haurrak bere azalean bizitakoa egia ote den, hori horrela izanik erasotzaile baten menpe egotetik epaile batzuen menpe egotera igarotzen zara.

Aitortzen dut erasotzaileek isilik nahi gaituztela, isilik eta menpeko. Hori horrela izanik ere salaketa jartzeko pausua eman nuen, prozesu amaiezin bati ekinez. Durangoko epaitegitik Bizkaiko Audientzia Probintzialera joan nintzen, handik Madrileko Audientzia Penalera iritsi nintzen arte. Bidean zehar eta askok kontzientziatzea zer den ez dakiten honetan agurtzeari utzi naute. Egia da bidea ez dela batere erraza, inondik inora, baina eraso bat jasan izan duen horren hitza ez nuke inolaz ere zalantzan jarriko, nik sinistuko nuke. Zorionez ni erasotzen ninduen abusotzailea lau pareten artean dago jada, baina jakin badakit 13 urte eta erdi igarotakoan aske izango dela, nik preso jarraituko dudana bitartean, zoritxarrez nire biziak aske izateari utzi baitzion 15 urte nituela.

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aguiar Fernández, F. X., Fernández Rodicio, C. I., & Pereira Domínguez, C. (2015). La familia y la intervención preventiva socioeducativa: hacia la identificación del maltrato infantil. *Revista Educativa Hekademos*, 17, 31-41.
- Alfaro Bolaños, L., & Marín Gálvez, G. (2008). *Consecuencias del abuso sexual en el rendimiento académico, el desarrollo afectivo y las relaciones interpersonales de cuatro jóvenes estudiantes de dos escuelas públicas* (Trabajo Fin de Maestría). Universidad Estatal a Distancia, Costa Rica.
- Cyrułnik, B. (2001). *Los patitos feos. La resiliencia: una infancia infeliz no determina la vida*. Barcelona: Gedisa, S. A.
- Casado Flores, J., Díaz Huertas, J. A., & Martínez González, C. (1997). *Niños maltratados*. Madrid: Díaz de Santos, S. A.
- Darriulat Riera, N. E. (2017). *Abuso Sexual Infantil: sus consecuencias a corto y largo plazo*. Universidad de la República Oriental del Uruguay. [pdf agiria] <http://bibliotecaparaalapersona-epimeleia.com/greenstone/collect/libros1/index/assoc/HASH01e0.dir/doc.pdf>-tik berreskuratua. [2020ko apirilaren 14an]
- Díaz-Aguado, M. J. (2001). El maltrato infantil. *Revista de educación*, 325, 143-160.
- Echeburúa, E., & Guerricaechevarría, C. (d.g.) *Concepto, factores de riesgo y efectos psicopatológicos del abuso sexual infantil* [pdf agiria] http://www.criminalisticaforense.com/images/Concepto_y_efec._patol_gicos_de_l_ASI.pdf-tik berreskuratua. [2019ko urriaren 20ean].
- Eusko Jaurlaritzak. (2016). *Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoerentarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzak e*. Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Guerricaechevarría, C. (d.g.). *El abuso sexual en la infancia* [pdf agiria] [file:///C:/Users/Propietario/Downloads/1.%20testua%203%20Abuso%20sexual%20en%20la%20infancia%20\(C.%20Guerricaechevarría\).pdf](file:///C:/Users/Propietario/Downloads/1.%20testua%203%20Abuso%20sexual%20en%20la%20infancia%20(C.%20Guerricaechevarría).pdf)-tik berreskuratua. [2019ko azaroaren 2an].
- Horno Goicoechea, P. (2013). *Escuchando mis "tripas": programa de prevención del abuso sexual en educación infantil*. Lleida: Boira editorial.
- Intebi, I. (2011). *Abuso sexual infantil: en las mejores familias*. Buenos Aires: Granica.
- Jiménez Abraham, N. (2016). El 70% de los abusos sexuales a niños y niñas son de “padres” y “abuelos”. *Marcha*. <https://www.marcha.org.ar/el-70-de-los-abusos-sexuales-ninos-y-ninas-son-de-padres-y-abuelos/>-tik berreskuratua. [2019ko azaroaren 4ean].
- Lago Barney, G., & Céspedes Londoño, J. A. (d.g.) *Abuso sexual infantil* [pdf agiria] https://s3.amazonaws.com/academia.edu.documents/38519089/Abuso_infantil.pdf?response-content-disposition=inline%3B%20filename%3DAbuso_infantil.pdf&X-Amz-

[Algorithm=AWS4-HMAC-SHA256&X-Amz-Credential=AKIAIWOWYYGZ2Y53UL3A%2F20191102%2Fus-east-1%2Fs3%2Faws4_request&X-Amz-Date=20191102T194627Z&X-Amz-Expires=3600&X-Amz-SignedHeaders=host&X-Amz-Signature=a8fe9fefdcf2e393669e46f4777bd590f35246dc5b70cd6807441e99810be56](#)-tik berreskuratua. [2019ko urriaren 20ean].

- Losada, V. A., & Saboya, D. (2013). Abuso sexual infantil, trastornos de la conducta alimentaria y su tratamiento. *Psicología, Conocimiento y Sociedad*, 3(2), 102-134.
- Martínez Bernal, J. (2000). Prevención del Abuso Sexual Infantil: Análisis Crítico de los Programas Educativos. *Psykhé*, 9(2), 63-74.
- Molledo, C., & Mayra, M. (2004). *Protegiendo los derechos de nuestro niños y niñas. Prevención del Maltrato y el Abuso Sexual Infantil en el espacio escolar. Manual de apoyo para profesores*. Chile: Fundación de la familia. Ministerio de Justicia.
- Muela, A. (2007). *Haurrei emandako tratatu txarrak: atzematea, jatorria ta ondorioak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Pereda, N. (2016). ¿Uno de cada cinco?: Victimización sexual infantil en España. *Papeles del Psicólogo*, 37(2), 126-133.
- Orjuela López, L., & Rodríguez Bartolomé, V. (2012). *Violencia sexual contra los y las niñas. Abuso y explotación sexual infantil. Guía de material básico para la formación de profesionales*. Gobierno de España: Save the Children. [pdf agiria] https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/violencia_sexual_contra_losninosylasninas.pdf-tik berreskuratua. [2019ko urriaren 10ean].
- Sanmartín, J. (2005). *Violencia contra los niños*. Barcelona: Ariel 3. edizioa.
- Vainstein, N., Fernández, A., Padín, C., Zito Lema, V., Gimol, P., & Elena, D. (2013). *Por qué, cuándo y cómo intervenir desde la escuela ante el abuso sexual a niños, niñas y adolescentes. Guía conceptual*. Argentina: UNICEF.
- Vila, R., Graco, A. M., Loinaz, I., & Pereda, N. (2019). El profesorado español ante el maltrato infantil. Estudio piloto sobre variables que influyen en la detección de menores en riesgo. *Revista Española de Investigación Criminológica*, 17, 1-25.
- Villanueva Sarmiento, I. (2013). El abuso sexual infantil: perfil de abusador, la familia, el niño víctima y consecuencias psíquicas del abuso. *Psicogente*, 16, 451-470.